


# Donostiako pa

**Mikel Estonba\***

**D**enboraren makina erabiltzeko aukera izango bagenu eta duela 200 bat urteko Donostiara itzuliko bagina, bertan aurkituko genukeen paisajeak ez luke gaur egunekoarekin inongo antzik izango; izan ere, gaur egungo hiriko kaleek betetzen duten lekuan hareatza zabalak eta padura zoragarriak aurkituko genituzke. Urumea, ibai-izaera galdu eta itsasadarra bilakatzen den Martutenetik aurrera, alfertu egiten zen eta, meandro zabalak eratuz, itsasorantz abiatzen zen, gaur egun Amara auzoa den horretan padura eta limo-

Dena den, duela hilabete batzura arte Burdinazko Zubia eta Egia-koaren artean, Urumea itsasadarrak kanalizatu gabe gelditzen zen azken zatietako batean, padura txiki bat ikus zitekeen. Metro karratu gutxi batzuk baino ez ziren; seguruenik guztira futbol zelai pare bat betetzera ez zen iritsiko, baina, dirudienez, padura txiki horrek estaltzen zuen alderdia "ezinbestekoa" da hiriaren garapenerako. Bestela, ezin uler liteke kanalizazio-proiektuaren aurrean zati horiek babestea eskatzen zuten taldeek nola ez duten Donostiako Udaleko arduradun politikoek amore ematea



E.A.E.

Urtebete eskas pasa da aldizkari honetan euskal kostaldeari buruzko artikulu-sorta argitaratu nuenetik. Orduetik hona jadanik hiru padura desagertu dira, Donostiakoa, Sakasakoa eta Baiñako Saint Bernardakoa.



# ko padurak: RIP



rala goraiatu edo Zarauzko du-  
na eta itsasadarra Biotopo izen-  
datzen ari diren une berean, Do-  
nostiakoa bezalako padura txiki

oso egoera arriskutsuan utz dezake, baita erakundeen aldetik nolabaiteko onarpena jaso duten Urdaibai eta Txingudin ere, degradazioa ez baita gelditu eta, Txingudiren kasuan konkretuki, berreskurapena gero eta zailagoa baita.

Gainera, egoera honi buelta ematen ez badiogu, eragina ez da Euskal Herriko biodibertsitatearen murrizketa garrantzitsua izango soilik, gure mugetatik kanpo ere eragina nabarmena izango baita. Izan ere, joan den apirilaren 8an "Hezeguneen kontserbazioa Ipar-Hego ikuspuntutik: Atlantiko-Ekialdea migrazio-

ke Natural izendatuz. Ez dago zalantzarik: gaur egungo ingurugiro-politika tamalgarri hau goitik behera aldatu beharra dago. Horretarako nahikoa litzateke erakundeek burutu dituzten ingurugiroari buruzko hamaika ikerketa, katalogo, egitarau eta aurreproiekturi nolabaiteko izaera juridikoa ematea; arazoa, izan ere, ez da gure ingurua ikertuta ez dagoenik edota oraindik ez dugunik ezagutzen zeintzuk diren gure alderdirik baliotsuenak, bai- zik eta babes-neurri eraginkorrak martxan jartzeko garaia iristen den bakoitzean ezkutuko interes politiko eta ekonomikoek pro-